

Jakinarazten da Behin-behineko Alkateak, 2025eko abuztuaren 11n honako Dekretu hau eman duela:

“2025eko irailaren 13an Oxirondon San Martinetako feria egitea aurreikusi dela jakinarazi ondoren, udaleko nekazal teknikariak proposatu zuen oinarri batzuk onartzea, tartean honako hauek:

- Odoslostek dastatzera emateko txosnaren ustiapena arautuko duten oinarriak.

Egindako lehen deialdia, eskaerarik jaso ez zelako, 2025eko uztailaren 15ean hutsik aitortzea erabaki zen.

2025eko uztailaren 17an emandako dekretu bidez bigarren deialdia egiteko pleguak onartu ziren.

2025eko abuztuaren 11an, esakera aurkeztu dutenen arteko zozketa egin da alkatetzan.

Zozketaren arabera suertatu den ordena aintzat hartuta, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: 2025eko irailaren 13an Oxirondon San Martinetako feria dela eta Odoslostek dastatzera emateko txosnaren ustiapena egiteko zozketaren emaitzak onartzea eta honako hau izendatzea adjudikazio hartzaile:

1.- Iñigo Akaiturri Irazabal, Harrera talde asistentziala taldearen izenean.

Honako hauek eta hurrenkera honetan onartzea erreserbarako edo pleguetan jasotako eraginetarako:

2.- Maren Belastegi Guridi, Bergara Aurrera Kultur Elkartearen izenean.

3.- Ibai Sanz Zubizarreta, Ernai Bergara taldearen izenean.

BIGARRENA: Iñigo Akaiturri Irazabal jaunari adieraztea datorren abuztuaren 30a baino lehen honako hauek bete beharko dituela:

1.- udalaren aurrean ordezkaria izendatu eta harremanetarako telefono zenbakia eta helbide elektronikoa jakinaraztea.

2.- 375,00 euroko fidantza jarri.

Fidantza ordaintzeko modua:

- Banku transferentzia bitartez, kontzeptuan *2025 san martin odoloste txosna* aipatuz.

Kontu korrante zk.a: ES 94 2095 5070 79 1061075569

Fidantza hori itzuliko da ezarritako baldintza guztiak bete direla egiaztatu ondoren.

HIRUGARRENA: Erabaki honen jakinarazpena udalaren web-orrian argitaratzea. Argitalpen horrek jakinarazpenaren ondorioak izango ditu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluari jarraituz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri udaleko nekazal teknikariari ematea eta argitaratu beharreko jakinarazpena ere bidaltzea, argitaratzeko.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, iragarki hau udaleko web orrian argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean iragarki hau udaleko web orrian argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki iruditutako beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergaran 2025eko abuztuaren 11n

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA